

**2021EKO OTSAILAREN 24KO BATZAR NAGUSIAREN**

**BATZAR-EGUNKARIA**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE**

**FECHA 24 DE FEBRERO DE 2021**

## ÍNDICE

|  | <u>Página</u> |
|--|---------------|
| - Se abre la Sesión.....   | 3             |
| - Lectura, por el Sr. SECRETARIO SEGUNDO, del primer punto del orden del día: “Las medidas adoptadas para mejorar la situación del sector primario.” .....                   | 3             |
| - Interviene la Apoderada del grupo EH Bildu Sra. Arriola Alzola ...   | 3             |
| - Interviene la Diputada Foral de Sostenibilidad y Desarrollo Territorial Sra. Unzueta Torre .....   | 5             |
| - Interviene la Apoderada del grupo EH Bildu Sra. Arriola Alzola ...   | 7             |
| - Interviene la Diputada Foral de Sostenibilidad y Desarrollo Territorial Sra. Unzueta Torre .....   | 8             |
| - Lectura, por el Sr. SECRETARIO SEGUNDO, del segundo punto del orden del día: “Previsiones para el sector industrial de cara al 2021.”                                      | 10            |
| - Interviene el Apoderado del grupo Elkarrekin Bizkaia Sr. Benito Ziluaga  | 10            |
| - Interviene la Diputada Foral de Promoción Económica Sra. Basurko Urkiri .....  | 12            |
| - Interviene el Apoderado del grupo Elkarrekin Bizkaia Sr. Benito Ziluaga  | 14            |
| - Interviene la Diputada Foral de Promoción Económica Sra. Basurko Urkiri .....  | 15            |
| - Lectura, por el Sr. SECRETARIO SEGUNDO, del tercer punto del orden del día: “Desarrollo y ejecución de la Norma Foral 4/2018 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.” ..... | 17            |
| - Interviene la Apoderada del grupo EH Bildu Sra. Duque Santacoloma  | 17            |
| - Interviene la Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad Sra. Laespada Martínez .....   | 18            |
| - Interviene la Apoderada del grupo EH Bildu Sra. Duque Santacoloma  | 19            |
| - Interviene la Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad Sra. Laespada Martínez .....   | 19            |
| - Lectura, por la Sra. PRESIDENTA, del cuarto punto del orden del día: “Implantación del Billete Único.” .....   | 20            |
| - Interviene el Apoderado del grupo Elkarrekin Bizkaia Sr. Lobato Pascual  | 20            |
| - Interviene el Diputado Foral de Transportes y Movilidad Sostenible Sr. Gómez Viar .....  | 20            |

- Interviene el Apoderado del grupo Elkarrekin Bizkaia Sr. Lobato Pascual 21
- Interviene el Diputado Foral de Transportes y Movilidad Sostenible Sr. Gómez Viar ..... 21
- Se levanta la Sesión..... 22

2021eko otsailaren 24ko batzarra  
goizeko 11:32an hasi da.

Se inicia la sesión del 24 de  
febrero de 2021 a las 11:32 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: ... Eta, jarraian, kontrol plenoko lehenengo puntua idazkari jauna:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO /BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Interpelación  
[\(R.E.11/E/2021/0000124\)](#)

**Autor:** Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

**Asunto:** Las medidas adoptadas para mejorar la situación del sector primario.

**Documento Principal:**  
[\(R.E.11/E/2021/0000124\)](#)

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (43A)

**Expediente:** [\(11/B/18/0002007\)](#)

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itauna  
[\(11/E/2021/0000124SE\)](#)

**Egilea:** Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

**Gaia:** Lehen sektorearen egoera hobetzeko hartutako neurriak

**Dokumentu Nagusia:** [\(11/E/2021/0000124SE\)](#)

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (43A)

**Espedientea:** [\(11/B/18/0002007\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Ekimena aurkeztu dauen batzarkidearen txanda da; beraz, Arriola Alzola andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Egun on, mahaiburu andrea, egun on danoi. Klima aldaketan, kutsadura arrazoi larrienetakoak dira nekazaritza eta elikadura sistema industrial eta eredu agroportatzailea. Lehen Bagan jaunak aipatu dau aurrekontuen eztabaidan zelan ahalegin asko egiten dan Aldunditik iraunkortasunari eta nekazaritzari dagokionez; datu bakarra emon nahi deusut, Bagan jauna, horren inguruan, eta da Nazio Batuek Johannesburgon egin eben gailurrean, txosten bat atara ebela iraunkortasuna neurtzeko; lau parametrotan neurtzen da, eta dira: elikadura, ura, energia eta biodibertsitatea. Lurralde bat menpekotasun maila haundian baldin badago parametro horietako edozeinetan, ez da iraunkorra. Bizkaia, danok dakigu, elikadurari jagokonez %95eko menpekotasunean dago, energiari jagokonez bardin, biodibertsitatea ez da gure indarra, eta ura ere ez dator guztia gure lurraldetik, Burgosetik datorrelako zati haundi bat. Beraz, hori datu moduan aipatu nahi neban, ebidentziak izateko.

Nekazaritza ereduari jagokonez, nekazaritza eredu bi jarri daikeguz aurrez aurre: agroindustrial eta agroekologikoa.

Agroindustrial iraultza berdetik eratorritakoa da, kanpo intsumoetan oinarritua, ongarri, herbizida, pestizida, monokultiboetan, OGMeetan, inbertsio haundiak

eskatzen dauz, eta teknifikatutako nekazaritza bat da mekanizatua, nekazaritza bihurtzen dabena kate luze baten lehen katebegia, eta hori da, Bizkaiko Foru Aldundiak horren aldeko apustua egiten dau, horra bideratzen dau nekazaritza eredu.

Zein da beste eredu aurrez aurre jarri daikeguna? Agroekologikoa. Eta eredu agroekologikoa nekazaritza tradizionalan oinarriturikoa da, lekuan lekuko ezaugarrien araberrako teknikak erabiltzen dauzanak, kultura eta herri bakoitzari moldatuak. Baserriko baliabideen maneian oinarrituta. Ez kanpoko baliabideetan, ez kanpoko intsumoetan, baserrikoetan baino. Produkzio dibertsifikatuak sustatzen dabezanak, ez monokultiboak, dibertsifikatuak baino. Tokiko baldintzetara egokitutako barietate lokaletan, inbertsio txikiak, birziklapenean oinarritutakoak, zikloen itxieran, transformazino eta salmenta zuzenean.

Esandako moduan, eredu agroindustrialak pestizidak, ongarriak eta makina asko erabiltzen dauz, eta horrek berotegiko gasen efektuen %10a suposatzen dau. Horretaz gain, zorua suntsitzea ere badakar, eta horrek eragin zuzena dauka materia organikoa lurrera ez bueltatzean, eta, beraz, biodibertsitatearen galeran. Beraz, larrialdi klimatikoaz gain, biodibertsitatean ere badauka honek eragina.

Merkaturatzeari erreparatuz, munduan ekoizten dan elikagaien herena alferrik galtzen da, 1.300 milioi tona urtean munduan. Eta munduan 1.000 milioi pertsona gosez dago, horietatik bi heren baserritarrak, ez hemengoak, baina bai beste leku geopolitiko batzuetakoak.

Eta hori zergaitik gertatzen da? Bada, elikadura merkantzia moduan kontsideratzen dalako eta ez eskubide moduan; Munduko Bankuak eta Munduko Merkataritzarako Erakundeek hautatu eben, eta horrek zer suposatzen dau? Multinazionalak elikadurarekin dirua egiten dabela, urtean konkretuki 3,5 bilioi € munduan zehar. Produktuak, hemen, bere ekoizpen puntutik kontsumo puntura 2.000 kilometrotik gora egiten dabe. Eredu deslokalizatu honen arrazoietakoa bat da energia kontsumo haundia suposatzen dauela, garraioagaitik eta produkzio moduagaitik. Agroindustriaren mesedetan egiten da hau guztia, eta baserritar txikien desagertzea dakar, besteak beste.

Bizkaian kontsumitzen dogunaren %95a kanpotik dator, eta produkzio-katean, distribuzino-katean, zerikusi haundia daukie kontrolatzen dabela 5 kate nagusiek, Alcampo, Eroski, Mercadona, Corte Ingles eta Carrefourrek; horri Euromedia eta Ifa gehituta, %75a. Horrek zer suposatzen dau? Bada, hemengo baserritarrak prezio baxuak jasotzen dituztela beraien produkzioengatik, produzitzen dabena komertzializatzeko arazoak dabezala, errekonozimendurik ez daukiela eta belaualdien arteko errelebo falta nabaria dagoala. 1993tik gaur egunera, Bizkaian baserritarren %43ko beherakada bat egon da. Lehenengo sektorea planeta hozteko eta ekonomia zirkularraren aplikazino praktikoa egiteko ezinbestekoa da; gaur egungo agroelikadura sistema globalak eragiten daben krisi ekonomiko, ekologiko, soziala oso larria da. Dumping izugarriak eginda jaten dogu guztiok egunero. Beharrezkoa da neurri zehatzak hartzea, lurralde mailako politika aktiboak sustatzea. Bizkaian, 2009. urtean 46.459 hektarea egoazan lur goldagarri edo, baserritarrek erabiltzen ebezanak, eta hortik 1.191 ekologikoak, hau da, %2,5. Eta 2016an, lur goldagarria 37.661 hektareatakoa da, hau da, 2009tik 2016ra 8.000 hektarea galdu dira nekazaritza-lurretan. Eta 1.191 dira gaur egun ere ekologikoan; portzentajeak igo egin dau, %3ra, baina jaitsi egin dalako lur goldagarriaren kopurua. Europako itun berdeak esaten dau baserritik mahairako estrategian 2030erako lurralde bakoitzean ekologikoan egon behar dirala lurren %25ak; begiratu guk nolako galga daukagun, nolako aurrerapenak egin behar doguzan. Horregatik galdera, Unzueta andrea, zeintzuk dira Aldundiak lehen sektoreari ikusgarritasuna eta errekonozimendua emateko dituen estrategiak eta hartutako neurriak? Zeintzuk dira, Aldundiak, lehen sektorearen errentagarritasuna bermatze aldera, hartuko dituen neurriak? Zeintzuk dira hartutako neurrien jarraipen adierazleak? Zein da BFaren plangintza, agroekologia sustatzeko eta Europak markatzen duen kopuruetera heltzeko? Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, Arriola Alzola andrea. Eta erantzuteko txandan, Aldundiaren ordezkaria, Unzueta Torre andrea, zurea da berbea.

La Sra. **UNZUETA TORRE** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Interpelazio honen arrazoiak hainbat kontu batzen ditu. Nekazaritza-ekoizpena, klima-aldaketa, ustiategiaren errentagarritasuna, nekazaritzako elikagaien sistema, ekoizpen-ereduak. Lehen sektoreari eragiten dioten gaiak, baina guztiak ez dira Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenekoak. Horregatik, lehenengoz, eskumen horiek zeintzuk diren gogoratu nahi dut: nekazaritza-lurrak kontserbatzea eta hobetzea, landare eta animalia-ekoizpena eta osasuna, mahastizaintza, enologia eta landa-garapena. Gure eskumenak hertsiki horiek izan arren, Aldundi honek badaki nekazaritzako elikagaien kateak maila guztiak behar dituela: foru-eskumenekoa den ekoizpenetik hasita eta Eusko Jaurlaritzaren eskumena diren eraldaketara eta merkaturatzera.

Horregatik, euskal administrazioek elkarrekin eta koordinatuta egiten dugu lan, kateak funtzionatzeko eta, horrela, sektoreak aurrera egiten duela bermatzeko. Koordinazio horren eskutik eta lankidetzaz-esparru posibleak kontuan hartuta, administrazio bakoitzak bere eskumenen barruan lehen sektorea mantentzeko eta hazteko beharrezkotzat jotzen diren jarduketak planifikatzen, garatzen eta babesten ditu.

De esa coordinación interinstitucional, sin la cual la cadena de valor no cobraría sentido, les voy a hablar más adelante. Pero me quisiera centrar en una cuestión clave: la planificación. Y, en ese sentido, quiero subrayar que esta Diputación realiza una exhaustiva planificación de las medidas a adoptar. Y también me gustaría recordar que la normativa emana de Europa y que en estos momentos se está reflexionando sobre el futuro Programa de Desarrollo Rural, no sólo en el ámbito europeo, sino también en el vasco, al mismo tiempo que se trabaja en el período de transición del actual PDR al próximo, dentro de esa planificación y relacionada con la colaboración entre instituciones de la que les he hablado, Gobierno Vasco y las tres Diputaciones Forales estamos inmersos en la reflexión del Plan Estratégico Rural Vasco.

Coordinación y planificación, dos cuestiones que se complementan con las ayudas que se conceden al sector primario. Unas ayudas con las que, entre otras cosas, tratamos de contribuir a la rentabilidad de las explotaciones agrarias. Esa rentabilidad depende de muchos factores, y no todos forman parte de nuestro ámbito competencial. Pero sí las cuestiones referidas a las ayudas. Y en ese sentido, y al hilo de lo que les he explicado al hablar de planificación, en estos momentos sigue vigente el PDR 2020 como marco normativo. Dentro de ese marco, acaban de aprobarse los presupuestos para este ejercicio 2021, en esos presupuestos esta Diputación dirige 16 millones de ayudas directas al sector primario.

Ayudas de agro-ambiente y clima y agricultura ecológica. Y comienzo por estas, porque precisamente, encajan muy bien con las inquietudes que nos estaba planteando la señora Arriola al sustanciar esta interpelación. Estas subvenciones ascienden a 1.690.000 euros para este ejercicio, suponiendo un incremento de 130.000 euros respecto al ejercicio 2020, y precisamente se hace ese incremento para contribuir a que el sector pueda apostar por compromisos medioambientales en la producción agrícola y afronte ese reto que, sin ningún género de dudas, Europa está incluyendo entre sus prioridades. Dentro de este programa, como saben, se compensa a las personas agricultoras que suscriben de forma voluntaria esos compromisos agroambientales y climáticos en sus explotaciones y se apoya la adopción y mantenimiento de prácticas y métodos de agricultura ecológica.

Nekazaritza-ustiategietan inbertitzeko eta gazteak lehen sektorean sartzeko laguntzak ere egongo dira. Laguntza horiek Europaren finantzakidetasuna dute, eta ezin hobeto lotzen dira nekazaritza-sektorea mantentzeko eta hazteko funtsezkoak diren bi gairekin:

ustiategien modernizazioa eta belaunaldi-aldaketa. Bi kontu horietarako 3.694.000 euroko ekarpena egiten dugu.

Nekazaritza-sektorearentzako konpentsazioak mendi-nekazaritzako eremuetan edo muga naturalak dituzten eremuetan. Laguntza hauetan ere hazkuntza izan da iazkoekin alderatuta, eta, guztira, 2.595.000 euro izango ditugu aurten. Laguntza hauen bidez eremu horietako sare sozioekonomikoa indartu nahi dugu, lehen sektoreari eutsiz eta, aldi berean, landa-inguruneko bizi-maila hiri-eremuetako bizi-mailarekin parekatzeko. Kontuan hartuta, gainera, mendi-nekazaritzako edo muga naturalak dituzten eremu horiek ohikoak direla gure sektorean, gure lurraldearen ezaugarri orografikoak direla-eta, aldi berean diru laguntza horiek nekazaritza-ustiategien errentagarritasunari laguntzeko modutzat har daitezke.

Esas ayudas también se complementan con otras, que tienen menos vinculación con las cuestiones planteadas en la interpelación, pero que, sin duda, contribuyen al mantenimiento de la actividad de nuestro sector primario, como son las ayudas del pilar 1 de la PAC- o del Fondo FEAGA, para las que se destinarán 7,7 millones de euros.

Pero más allá de las ayudas, el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural también apoya a estructuras sectoriales que prestan servicios básicos y necesarios para las personas que trabajan en el agro. Un apoyo que se traducirá en 1.837.000 euros y que también sirve para dar visibilidad al sector primario y tratar de garantizar la rentabilidad de sus explotaciones, aunque sea de forma indirecta.

No podemos olvidar que las ayudas a las asociaciones subsectoriales buscan reforzar el asociacionismo con el objetivo de reforzar la profesionalización de las explotaciones, y defender mejor los intereses profesionales de las personas que trabajan en ellas. Como ocurre en otros sectores, en el agrario las explotaciones, que no dejan de ser empresas, y en Bizkaia son empresas de pequeño tamaño. Sabemos, somos conscientes de las dificultades propias de cualquier empresa de pequeño tamaño, pero sobre todo en lo referente a la capacidad competitiva. Una competitividad que es siempre es más fácil si se sustenta en alianzas, como las que se promueven a través de esas asociaciones.

Aipatu dudan egitura sektorialen artean dago Lorra kudeaketa-zentroa. Zentro honek nekazaritzako eta abeltzaintzako alorretan elkarteentzako zerbitzu teknikoak eta elkarte horien errendimendua kontrolatzeko zerbitzuak ematen ditu. Ikusten duzuen bezala, ustiategien errentagarritasunari laguntzeko beste era bat da.

En cualquier caso, esa rentabilidad, depende de muchos factores, como bien decía. Algunos entran dentro de nuestro ámbito competencial. Y otros no. Y coincidirán conmigo en que la rentabilidad de cualquier negocio no depende de las Administraciones, aunque podamos contribuir a ella con medidas como las que he puesto y con otras que comentaré a continuación.

En aquellas cuestiones en las que no tenemos competencia, señalaba que trabajamos la coordinación y colaboración.

Une honetan bi ekimen lantzen ari gara, interpelazio honen zioan planteatzen diren gaiekin lotuta daudenak. Alde batetik, tokiko merkatuei buruzko hausnarketa-prozesu bat hasi gara. Jakin badakizue merkaturatzea ez dela Aldundi honen eskuduntzen artean sartzen, baina gure asmoa hasiera baten Eusko Jaurlaritzarekin batera lan egitea da, eta, aldi berean, beste erakunde batzuen inplikazioa bilatuta, merkatu horiek sendotzea ahalbidetuko digun estrategia bateratua garatzeko, eta, ondorioz, gure baserriarren ekoizpenari irtenbidea eman ahal izateko.

Horrekin, hainbat helburu lortuko ditugu: lehen sektorea ikusaraztea, kalitatezko produktuak sortzeko funtsezko eginkizuna emanez; sektorearen errentagarritasunari laguntzea, sektoreari ekoizpena merkaturatzeko tresna eraginkorra emanda; eta, ingurumenari dagokionez, salerosketako zirkuitu laburraren onurak zabaltzea.

Esos son los objetivos de la estrategia para consolidar los mercados locales y dar salida a la producción de nuestros baserritarras: dar visibilidad al sector primario, otorgando el papel de generador de productos de calidad; contribuir a la rentabilidad del sector poniendo en sus manos una herramienta eficaz de comercialización de su producción; y difundir los beneficios medioambientales de circuito corto de compraventa entre la población en general. Creo que esta iniciativa encaja perfectamente en las inquietudes planteadas.

Hala ere, une honetan gogoeta hau hasten ari den fase batean dago, eta ez daukagu datu zehatzik. Baina, lau euskal administrazioak ere modu koordinatuan ari gara lanean, Gaztenek programari buruzko hausnarketa-prozesuan. Programa honen helburua gazteak lehen sektorean sartzea da. Etorkizuneko Euskal Landa Plan Estrategikoaren barruan egiten ari gara. Eta plan horretan, Euskadiko kudeaketa-zentroak eta euskal nekazaritzako eta abeltzaintzako sindikatuak ari dira parte hartzen.

Como ven, estamos apostando por dar visibilidad a nuestro sector primario. Por ayudar a la rentabilidad de las explotaciones. Y, también, por abrir nuevas vías que pongan en valor la importancia que tiene el sector primario como agente activo en la conservación medioambiental.

Esto último es un valor que va a cobrar gran relevancia en el corto, medio y largo plazo. Lo va a hacer porque las políticas europeas vinculadas al sector primario van a poner el acento en ello. Y porque cada vez son más las personas preocupadas y ocupadas en lograr formas de consumo y producción más sostenibles.

El sector primario de Bizkaia viene implicándose en ello desde hace tiempo. Tenemos, además, la ventaja de que, a diferencia de lo que ocurre en otros lugares, nuestro sector no es un sector industrializado. El tamaño de nuestras explotaciones no es grande. El sistema de producción en Bizkaia es un sistema familiar.

Por tanto, ese rasgo que puede suponer un hándicap en otras cuestiones, en este caso puede ser una gran oportunidad, si la sabemos aprovechar. No vamos a cejar en el empeño de hacerlo. Y en todo lo que podamos arrimar el hombro, lo haremos. Vamos a estar con el sector primario también para afrontar este reto, como hemos estado cuando se han planteado otros en el pasado lejano o más reciente. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, zuri, Unzueta Torre andrea. Erantzuteko txandan, Arriola Alzola andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Eskerrik asko, Unzueta andrea. Tira, bada non begiratu European, esan nahi dot, nonbait begiratu nahi bada, esate baterako produkzioari begira, oso ekimen interesgarriak daude Austrian. Italian, komertzializazioari begira zerbait egin nahi bada, han daude ere mila aukera; beraz, oso interesgarria baita. Eta transformazioari begira, Frantzian, Iparraldean bertan daude mila aukera urrunago joan barik, diot, European badirela beste asko beste norabide batean dabiltzanak eta nekazaritza sektorea askoz ere biziago daukatenak eta prezio justuak jasotzen dituztenak bertako baserritarrek, hemen baino justuagoak. Beraz, European abaniko zabala daukagu.



Katalunian ere badaude hainbat adibide, diot, pixka bat hurbilago zerbait begiratu nahi bada.

Errekonozimendua esan duzu, badagoela baserritarrekiko, errekonozimendua egongo da, baina prezio justurik ez dute jasotzen egindako lanagatik, eta hori ez dago begiratzetik jatorri helmuga prezioen artean, 4,15 edo biderkatzen baitira. Tipula bat 0,20€an pagatzen bazaio kiloa baserritarri, 1,44€an dago supermerkatuan, adibide bat jartzearen, hau da, baserritarrek euren lanetik lortzen duten ordainsaririk, askok nekez lortzen dute hilean 600 edo 800€ Beraz, zer eginga badago, eta hain galera handia eduki dugu aktiboena, zeren hemen enplegua sortzeko aukera izugarria dago lehenengo sektorean, kontuan hartu %95a jaten dugunetik kanpotik badator, bada, ea hor ez badago demanda erreal bat erantzuteko. Hemen aipatu dituzu kontu batzuk eta eskertzen dizut, baina, adierazlerik ez dizut entzun edo ez naiz konturatu, Elena Unzueta, hau da, egiten diren politiken emaitzak baloratzeko; bada, ze adierazle-edo erabiltzen duzuen. Eta bide horretan, agroekologiarantz egiteko bidean, hartutako neurriek nora arteko eraginkortasuna daukaten orain arte aplikatutakoek, eta etorkizunera begira horri bultzada handi bat eman behar zaionez, datu objektiboak ikusita, ze egitasmo konkretu dagoen eta horiek nola baloratuko diren. Zenbat gazte inkorporatu dira agroekologikoan? Orokorrean Bizkaian? Zenbat eremu handitu da agroekologian Bizkaian? Hau da adierazleak zeintzuk dira? Lorra aipatu duzu, Lorra kudeaketa zentroa; jakin nahiko nuke Lorra kudeaketa zentroak egiten duen aholkularitzan zein eredu bultzatzen duen, hau da, agroekologia bultzatzen baldin badu, zenbat diren, kopurua, badira ustiategi bat, bi, 20 edo zenbat diren. Eta Lorrak bultzatzen duen eredu horretan zein den ustiategi edo baserri horien zorpetze maila.

Datuak ezagutzen ditut, alde zuzenetik esaten dizut zeintzuk diren. Begiratu izan ditut, sistema intentsiboa bultzatzen delako, bai esnean eta bai okelan, eta, beraz, ezagutzen ditut kredituen mailak eta zeintzuk diren datuak, baina gustatuko litzaidake ezagutzea batez ere zein den zuen irakurketa datu horiena.

Eta gero, bukatzeko, Covid garai honetan ere eta komertzializazioa oraindik okerrago egon den garai honetan, baserritar txikiei begira, plazak utzita, tabernak itxita, badaude egin daitezkeen gauzak Aldunditik ere, hau da, Aldundiak egiten du erosketak publikoa, elikagaien erosketak publikoa zentro ezberdinetarako, kontenplazteak badaukazue zuen pleguetan, hurbileko erosketak batzuk egitea, eta prezio batzuk ordaintzea horrekiko; egin daitezkeen gauzak badaude, baina badago borondaterik horiek egiteko? Badago asmorik Aldundiaren aldetik? Hori da gustatuko litzaidakeena argitzea, hau da, adierazle konkretuak, mesedez, zehaztea zeintzuk diren orain arteko politiken emaitzak baloratzeko eta beste zerbait birplanteatzekotan-edo bazaudete, zeintzuk diren hartzeko asmoa daukazuen neurriak eta gero nola baloratzeko asmoa daukazuen? Lehenengo sektoreak benetan une gogor-gogorak bizi dauz, eta nik uste dut hortaz kontziente izan behar garelako denok, eta ahalegin guztiak bideratu behar direla horri hauspoa emateko. Beste barik, eskerrik asko, Unzueta andrea.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, zuri, Arriola Alzola andrea. Eta erantzuteko txandan, Unzueta Torre andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **UNZUETA TORRE** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Zeregina badago eta horregatik gaude hemen, eta horretarako gaude lanean. Estrategiaz eta neurriez galdetu didazu, eta aipatu egin ditut. Plangintzaz ere bai esan dut, esan da argi eta garbi, euskal landa-eremurako plangintza berria lantzen ari gara 4 administrazioak batera. Aipatzen dituzu adierazleak, bada, argi daude, azalerak, enpresak, lanpostu-kopurua, ezagutzen dituzunak. Baina agroekologiaz aritzean, gogorazi nahi dut, nire lehenengo txandan aipatu dudana bezala, Landa Garapen Programa berria definitzeko prozesuan sartuta gaudela, ez bakarrik Europako horizontarekin, baizik eta, Euskadiren kasuan, Euskal Landa Plan Estrategiko horren diseinuan sakontzen ari garelako. Prozesu hori amaitzean Plana edukiko dugu,

eta plan horrek aipatuko ditu zer-nolako lan-ildoak, zer-nolako ekintza zehatzak, zer-nolako errekurso ekonomikoak eta baita ere zer-nolako adierazleak izango ditugun planifikazio berrirako; bada, orduan, hori ere edukiko dugu plangintza berrian.

Nekazaritza Politika Bateratua da gure arau eta laguntza-esparrua baldintzatzen duen tresna. Duda barik, holaxe dago ezarrita.

Eta nekazaritza-politika komun horrek landa-komunitateen dinamismoan eta bideragarritasun ekonomikoan laguntzen du, landa-garapeneko neurrien bidez. Neurri horiek merkatuko neurriak eta errentarako laguntzak indartzen dituzte, Europar Batasuneko nekazaritzako elikagaien eta basogintzako sektoreak, ingurumen-jasangarritasuna eta, oro har, landa-eremuen ongizatea indartzeko helburuarekin. Hiru helburuak dira konkretuki: nekazaritzaren lehiakortasuna sustatzea; baliabide naturalen kudeaketa iraunkorra eta klimaren aldeko ekintza bermatzea; eta landa-ekonomien eta -komunitateen lurralde-garapen orekatua lortzea, enpleguaren sorrera eta kontserbazioa barne. Hor ere adierazleak izango ditugu.

Eta lan-esparru horretan gaude, eta ez gaude bakarrik administrazio publikoak, baizik eta, esan dudan bezala, sektorearekin, kudeaketa-zentroekin, nekazaritzako eta abeltzaintzako euskal sindikatuekin kontrastatzen eta lantzen ari gara dokumentu hori, partekatutako prozesu batean sartuta.

Eta prozesu horretan, agroekologiari eta plangintza-mailan Europatik datozen gai guztiei heltzen ari zaie, etorkizuneko Landa Garapen Programak egingo duen bezala. Gure ustez, koordinazioa funtsezkoa da Euskadin, eta hori da arau-esparru berria eta etorkizuneko euskal plan estrategikoa definitzeko lan-bidea. Badakigu Europako Eskualdeetako Komiteak agroekologiari buruzko irizpen-proiektuari heldu diola. Horren edukia ekar ditzakeen neurrien ikuspegia ezagutzen ditugu. Entzun eta irakurri ditugu ere hausnarketa prozesuan nekazaritza eta ekologiarako eraldaketa zein onuragarria den azaltzen duten argudioak, abeltzaintzako, nekazaritzako eta basogintzako laboreak integratuz, atmosferara karbonorik ez isurtzeko helburuarekin. Luze eta sakon eztabaidatu genezake Bizkaiko ustiatzekiek gaur egun gure lurraldeko biztanleak hornitu ahal izango lituzketen, elikadura-subiranotasuna lortuz eta ingurumena bermatuz eta zainduz. Eta ziur nago ados egongo garela eztabaida horretan.

Baina eztabaidan sar genezake ekoizpena ekologikoa bakarrik izan behar den ala ez. Bizkaian, gaur egun guztira 750 ustiategi ditugu erregistratuta. Horietatik, gaur egun, %10ek ekologikoan lan egiten dute mota guztietan. Baserritar bakoitzak, enpresari bakoitzak bezala, ez dezagun ahaztu nekazaritza-ustiategi bat enpresa bat dela, bere asmoen, helburuen eta aukeren arabera aukeratzen du negozio-eredua. Eta Bizkaiko Foru Aldundiak, Nekazaritza Zuzendaritzaren bidez, Bizkaiko nekazaritza-ekoizpenari laguntzen dio, borondatez aukeratutako eredua zein den berdin izanda.

Bizkaiko nekazaritzako elikagaien produktuak kontsumitzea, egunez egun inguratzen gaituen ingurune naturala mantentzen laguntzen duten gizon eta emakumeen lanpostu kopuru handia mantentzeaz gain, gure lurraldeko landa-ingurunea bizirik mantentzearen aldeko apustua egitea da, animalien ongizatean eta animalien, landareen eta basoen osasunean babestutako kalitatezko produktuen alde egitea. Aukera pertsonal eta boluntarioaren alde egitea ere bada.

Desberdinak dira ditugun ustiapen-ereduak. Ez ditu Aldundi honek aukeratzen, baizik eta ustiategi berri bat mantentzeko edo sortzeko urratsa ematea erabakitzen duen gizon edo emakume bakoitzak. Eta administrazio publikoa garen aldetik, eredu horiek guztiak babestu behar ditugu.

Amaitu nahi dut gogoratzen argia eta irmoa dela gure apustua Bizkaiko nekazaritza eta abeltzaintza-ekoizpenaren alde, gure baserritarren eta haien produktuen alde. Eta

argi eta beharrezkoa da Bizkaiko herritar bakoitzak kontuan hartzea Bizkaiko jasagarritasunari egiten dion ekarpena, tokiko produktua kontsumituz egiten duena: aztarna ekologiko txikiagoa, produktu freskoagoa, kalitate handikoa, eta gure soroak, mendiak eta baratzeak egunez egun zaintzen dituzten gizonen eta emakumeen lanpostu horiei eustea, gure lurraldeko eta bertako auzo eta udalerrietako biodibertsitatea bizirik eta jardunean mantentzen laguntzen baitute. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, zuri, Unzueta Torre andrea. Eta gai-zerrendako bigarren puntua.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO /BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Interpelación  
([R.E.11/E/2021/0000969](#))

**Autor:** Benito Ziluaga, Xabier (EB)

**Asunto:** Previsiones para el sector industrial de cara al 2021.

**Documento Principal:**  
([R.E.11/E/2021/0000969](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (47A)

**Expediente:** ([11/B/18/0002083](#))

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itauna  
([11/E/2021/0000969SE](#))

**Egilea:** Benito Ziluaga, Xabier (EB)

**Gaia:** Industria-sektorerako aurreikuspenak 2021erako

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2021/0000969SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (47A)

**Espedientea:** ([11/B/18/0002083](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Ekimena aurkeztu dauen batzarkidearen txanda da; beraz, Benito Ziluaga jauna, zeurea da berbea.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko. El año 2020 ha sido un año complicado en lo sanitario, en lo social y en lo económico tras el inicio de la pandemia mundial por la Covid19. Esta penosa experiencia por la que estamos pasando nos muestra la importancia de tener unos sectores industriales sanos, fuertes y, sobre todo, también vinculados a los poderes públicos. Por ejemplo, para la investigación en tratamientos y vacunas, o para la producción de EPIs y mascarillas, que recordemos que al inicio de la pandemia había que comprarlas a China con los problemas de abastecimiento que ello conllevaba.

Esta pandemia nos muestra también la necesidad de no permanecer pasivos ante la crisis, bajo el tacaño error de limitar el gasto y la intervención pública. Al contrario, es momento de hacer, y ese hacer es también una oportunidad para transformar nuestros sectores productivos hacia la sostenibilidad social y medioambiental. Y es que el objetivo último de todas las políticas debería ser el bienestar social, también en la política industrial, no ampliar el margen de beneficio o dividendos de las empresas, sino el empleo de calidad y el bienestar social, como último objetivo.

Desde nuestro grupo hemos querido presentar esta interpelación para poder seguir manteniendo un diálogo fluido en las Juntas Generales con el Gobierno Foral sobre la situación industrial en nuestro territorio.

Entrando en materia sobre el empleo en el sector industrial, según datos del Eustat, en el último trimestre del año 2020 se cerró con 85.700 empleos en el sector. Estos son 6.600 empleos más que a finales de 2019. Aún a falta de conocer los datos de temporalidad de esos contratos, cuestión que es importante, yo creo podemos sacar una conclusión que es que el sector industrial es el sector que mejor está aguantando esta situación. Y creo que de ahí también deberíamos replantear, o se debería replantear el Gobierno Foral la apuesta por los servicios financieros, el turismo o los macro eventos. Manufacturar es cosas de este territorio, y explica también que nuestra economía no se haya hundido tanto como otras del arco mediterráneo o de las islas, por ejemplo.

Así que nos preguntábamos si desde el Departamento están estudiando estas cifras, para conocer qué funciona, qué no y por qué. Y si pudiera compartir esas reflexiones con la Cámara.

A pesar de esta buena cifra, no creemos tampoco que haya lugar para momentos de autocomplacencia, pues la situación económica es aún hoy muy volátil, como ya conocen, y a pesar de este incremento de empleos industriales en Bizkaia, es la primera cifra de recuperación de empleo de una serie de años en los que venía decreciendo ese empleo industrial, concretamente desde el 2016, cuando la cifra era de casi 97.000 empleos, 12.000 más que hoy. Y por supuesto también son cifras menores a las previas a la crisis económica de 2008.

Y es que, si observamos el valor añadido bruto del sector industrial en Bizkaia, en el histórico que ofrece el Eustat, comprobamos que las cifras no son buenas. Desde el año 2000 al 2017, que es la última cifra que aporta el Eustat, el valor añadido bruto del sector industrial de Bizkaia, respecto al total, ha bajado del 27% al 19,3%.

Así que también nos gustaría que pudiera aportarnos las cifras actuales, si las tuvieran, para que evaluemos también la evolución de Bizkaia en estos últimos años, desgraciadamente, si coincide con la tendencia que sigue el conjunto de Euskadi, no habrá ningún incremento en esta cifra, porque, básicamente, tampoco lo ha habido a nivel de toda la Comunidad Autónoma.

Por último, si observamos el índice de producción industrial de Euskadi, en este caso. Vemos que, a pesar de la recuperación del gran bajonazo de abril de 2020, una recuperación esperable también, los últimos meses de 2020 parecen haberse estancado en una tasa de variación interanual del IPI de -7, lo que podría sugerirnos, también, como indicábamos en el texto de la interpelación que la recuperación no va a ser tan fácil, ni tan rápida, como nos gustaría a todos y a todas. Por otra parte, además de estas cifras macro del sector industrial en Bizkaia, nos gustaría también poner el foco en los casos concretos. Por ejemplo, los 150 despidos de TUBACEX, que, aunque están ubicadas en Laudio y Amurrio, que no es Bizkaia, son cierres que de seguro tendrán un impacto negativo en otras empresas de Bizkaia, especialmente en las más cercanas geográficamente. Y además no puedo si no aprovechar la ocasión para mandar desde aquí un mensaje de solidaridad a sus trabajadores en huelga, que ayer volvieron a ser tratados por la Ertzaintza como delincuentes, una cuestión inaceptable.

También nos gustaría mencionar los 87 despidos de ITP Aéreo, en sus filiales de Barakaldo y Sestao. Para este caso el conjunto de las Juntas Generales instamos al Gobierno Foral al diálogo para alcanzar una solución, sería interesante conocer qué pasos se han dado en este sentido. Los 37 empleos de la empresa United Caps de Sopela, que han sido trasladados a Girona. Los 231 despidos de Gestamp tras el cierre de Matricería Deusto y GTS. Y, luego, también otros casos en los que el cierre al final se ha quedado en una amenaza, como es la de Kelvion de Igorre, donde se planteó un ERE que finalmente se retiró, aunque el saldo final ya lo sabrá, ha sido de 31 empleos menos en la planta. Estos son los casos de cierre más llamativos que hemos conocido, sobre todo en los medios de comunicación estos últimos meses,

pero, desgraciadamente, en todo este año ha habido muchos otros casos de empresas del sector industrial que han tenido que cerrar.

En anteriores ocasiones se nos ha explicado la hoja de ruta que tiene el Departamento de Promoción Económica para estos casos, básicamente, esta hoja de ruta pasaría por 3 fases o por 3 acciones, una es la coordinación interinstitucional. Especialmente, con Gobierno Vasco y con las instituciones locales. Una segunda acción que sería mantener la comunicación abierta con los comités de empresas y las direcciones de esas empresas. Y en tercer lugar facilitar la búsqueda de inversores en los casos en que esto fuera pertinente. Por tanto, nos gustaría saber en qué ocasiones desde el Departamento se ha activado este protocolo u hoja de ruta, y también de los casos en los que he hecho referencia anteriormente, de las empresas cerradas, nos gustaría preguntarle qué valoración hacen de las actuaciones de los grupos multinacionales que están detrás de estas empresas.

Por último, y dado que se acaba de aprobar, nos gustaría conocer qué herramientas destacaría del nuevo presupuesto, que vayan a servir al Departamento para evitar los cierres que estamos viendo, y apoyar al sector industrial en su conjunto, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, zuri, Benito Ziluaga jauna. Eta erantzuteko txandan, Aldundiaren ordezkaria, Basurko Urkiri andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea, egun on, guztioi. Benito jaunak bere interpelazioan adierazten du, industria-sektoreak gure ekonomian duen garrantzia kontuan hartuta, bere taldeak honako hauek ezagutu nahiko lituzkeela. Alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak aurreikusten dituen datuak eta dituen aurreikuspenak. Eta bigarrenik, aurten Aldundiak hartuko dituen neurri eta tresnei buruzko galdera egiten du.

Datuetatik eta aurreikuspenetatik hasita, une honetan dakiguna hau da: Bizkaiko eta Euskadiko ekonomiaren hazkunde-aurreikuspenak okertu egin dira, 2021. urte honetan, berriz ere Covid-19aren pandemiaren hirugarren olatuak markatuta, eta uste genuena baino zalantzaszkoagoa eta ahulagoa den ekitaldi-hasiera bat bizitzen ari gara.

